

**2002KO URRIAREN 3AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIKO AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hirua.

HILABETEA: Urria.

URTEA: Bi mila eta bia

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Jon Jauregi Bereziartua jauna

BILDUAK: Patxi Plazaola Muguruza
Ana Isabel Asla Egialde
Jose Antonio Guirado Tristan
Arantza Aseginolaza Azkargorta
Pello Garaialde Goikoetxea
Josi Insausti Mujika
Iñaki Andoni Antxia Etxebarria
Miren Arrate Izagirre Iriondo
Aimar Larrea Garin
Jose Luis Elorza Mugica
M^a Carmen Gomez Mediavilla
Pablo Parra Moreno
Julio Herreros Serna Jorge
Jorge Juan Outeiral Fernandez

ETORRI GABEAK: Jon Berbel Aiestaran
Leire Lopez Zurutuza

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTAK

2002ko ekainaren 14an eta 2002ko ekainaren 27an egindako batzarraldietako akten berri eman ondoren, aho batez onartu dira, beraiekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- KONTU OROKORRA. 2001eko Aurrekontu Orokorraren Kontu Orokorra onartzea.

Alkate jaunak, Jose Antonio Guirado jaunari hitza eman eta honek honela dio: "Como todos estos últimos años presentamos la Cuenta General correspondiente al ejercicio económico del año anterior.

Memoria del ejercicio: como tema novedoso se hace mención de la creación de gestión y promoción de viviendas de protección oficial y suelo industrial Beasain Lantzen S. A. con capital 100% municipal. Los principios contables que se han tenido en cuenta a la hora de hacer esta memoria son: imagen fiel de las cuentas anuales, que se han preparado a partir de los libros y registro de contabilidad de la entidad. Distribución de resultados: el resultado del ejercicio según la cuenta de pérdidas y ganancias es de 467.334.891 pesetas.

Normas de valoración: inmovilizado inmaterial, se amortiza literalmente en un período de cuatro años. El inmovilizado material, ver tabla de la amortización en la documentación que se ha repartido. Inmovilizado financiero, acciones en Goieki, Egunkaria, Ur Zerbitzuak, Beasain Lantzen y Goierriko Beheko Industrialdea.

Provisión para insolvencias: derechos reconocidos no hechos efectivos con una antigüedad superior a 24 meses. Se considera de difícil e imposible realización.

Ingresos y gastos. Con un criterio de prudencia, el Ayuntamiento únicamente contabiliza los beneficios realizados a la fecha del cierre del ejercicio. En cambio, los riesgos y pérdidas aun los eventuales se contabilizan tan pronto como se producen. Esto es un criterio de saneamiento.

Inventario. De la actualización del inventario, el valor neto histórico contable de las inversiones en infraestructura y bienes destinados al uso general, asciende a 2.055 millones de pesetas. En el inmovilizado en curso, hay dos conceptos, lo del campo de futbol, 182milones y lo del AU 13 de 20 millones.

Fondos propios: partíamos anteriormente con un fondo inicial propio de 1.194 millones y al final se han conseguido 1.565 millones. Una diferencia de 456 millones de fondos propios. Todo esto una vez descontado el patrimonio cedido.

Conciliación de resultados, patrimonial y presupuestario. Si bien el resultado presupuestario del ejercicio era de 166.440.000, el resultado a efectos de contabilidad patrimonial asciende a 467.374.891. Pasando al balance, el total del activo, se ha incrementado en el 2001, en 536 millones. La Tesorería también se ha incrementado en 241 millones. Por último hablando del resto del endeudamiento a 31 de diciembre de 2001, en este momento tenemos un saldo vivo de deuda de 493 millones.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP) proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “De acuerdo con los números que aquí se presentan. Únicamente señalar que a pesar de todas las inversiones el nivel de salud financiera de este Ayuntamiento sigue siendo absolutamente excelente comparando con los parámetros de endeudamientos y máximos legales, etc.”

Beasaingo Alderdi Sozialistako ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Horren ondorioz, bozketa eginda aho batez onartu da 2001eko aurrekontu orokorraren Kontu Orokorra.

3.- KREDITU-ALDAKETA. Kreditu osagarrien atalean espedientearen onespena.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Kreditu-aldaketa hau gehienbat hirigintza-batzordetik datorren proposamena da. Proposamena ondorengo hau da:

Aurrekontu-kontusaila	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1.50.601.511.10.03.2001	La Gipuzkoana eta 18HA lursaila	60.101,21	30.050,61	90.151,82
1.60.601.452.20.01.2001	Skate-ak	36.060,73	90.000,00	126.060,73

1.40.682.453.10.04	Eraik.: Beheko aldaparoa	70.966,00	19.189,00	90.155,00
1.40.689.453.10.01	Igartzako intsuldaketa	30.050,00	48.085,00	78.135,00
1.50.601.452.50.01	Futbol-zelaia	300.506,00	36.687,63	337.193,63
1.50.601.511.10.00	Azp. eta hir.: Ezkiaga	36.060,73	120.202,42	156.263,15
1.50.622.449.10.02	Obretako biltegia egokitzea	580.446,98	90.151,82	670.598,80
1.50.643.412.00.01	Osasun Zentroaren proiektua	66.111,33	142.688,67	208.800,00
GUZTIRA		1.180.302,98	577.055,15	1.757.358,13

Gastu horiek honela finantzatuko dira:

Sarreraren kontzeptuak edota gastuen kontusailak	Baliabidearen kontzeptua (11)	Sarrera handiagoak/gastuetako bajak
1.90.622.449.10.02.2001	Obretako biltegia egokitzeko lanak	90.151,82
1.50.643.412.00.01.2001	Osasun Zentrorako proiektua	72.121,45
2.00.00.870.000.00.01	Kreditu Osagarriak finantzatzeko aplikazioa	67.253,46
2.00.00.933.000.00.01	Epe luzerako mailegua. Barne. Sektore publ. Kanpo	347.528,42
GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA		577.055,15

Nahiz eta banatu den dokumentazioan Osasun Zentroko Proiektuan, 180.000,00 € azaldu, berez proiektu horretarako 208.800,00 € aurreikusten dira eta kontratazioaren xedea bakarrik ez da izango, baizik eta proiektua bera, obra-zuzendaritza eta obraren egikaritze-zuzendaritza ere bere barne hartuko ditu.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

PPko ordezkariak adostasuna azaldu du proposamenarekiko.

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros vamos a dar la conformidad a lo que se propone aunque hay algunos elementos que se podían haber previsto en el presupuesto porque anteriormente ya se habían debatido, como por ejemplo la obra de los skates. Sobre el proyecto del ambulatorio, tenemos alguna duda sobre el procedimiento. No es la primera vez que se convocan este tipo de concursos. Algo similar se ha hecho para contratar la redacción del proyecto del polideportivo. Desde el punto de vista de la gestión puede ser el procedimiento más adecuado, pero desde el punto de vista de la rigurosidad de los concursos públicos tenemos nuestras dudas. Nosotros lo vamos a aceptar, pero dejamos encima de la mesa nuestras dudas.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Con el tema de las piscinas, el pliego de condiciones ha sido objetivo y claro, y creo que todos esperamos que se adjudique a quien todos pensamos.”

Ambulatorio. No tenemos arquitecto propio, pero lo tenemos en comisión de servicios. Es un caso claro en el que convendría que fuera alguien de la casa el que lo vaya a redactar, ya que hasta el último detalle se va a discutir con Osakidetza. Hay un proceso abierto para analizar el proyecto. A mi modo de ver peor hubiera sido que se hubiera acordado con el Gobierno Vasco la contratación de un técnico imparcial. El procedimiento va a ser legal y claro.”

Andoni Antxia jaunak (Beasaingo Sozialista Abertzaleak): “Hemen proposatzen ziren aldaketa gehienak usaintzen ziren eta praktikan derrigortuta gaude horrelako gauzak egitera. Beraz, proposamenaren alde gaude.”

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez onartu da kreditu-osagarrien ataleko espedientearen onespena.

4.- IZENDEGIA. Kale berriak izendatzea eta eraikin berriak zenbatzea.

Alkate jaunak, Patxi Plazaola, hirigintza-batzordeburuari hitza eman eta honek honela dio: “Gai hau derrigorrezkoa zen martxan jartzea, zeren eta laster Dolarea inguruan egiten ari diren etxebizitzaren eskriturak egin behar dituzte. Pentsatzen dugu eremu hau oso berezia dela Beasainentzat eta horregatik toponimia kontuan izatea garrantzitsua da. Bestaldetik Dulce Maria Loinaz pertsonarekiko zerbait eskaintzeko konpromisoa genuen. Bere idatziekin bat eginez plaza bati izen hori jartzea pentsatu dugu.

Proposamena, hain zuzen, ondorengoa da:

Oraingo zubi berritik bukaeraraino, lehendik ere hor zen *Peategi kalea* deitzea. Izen horren arrazoia zera da: badirudi garai batean Igartzako jauntxoak hortik pasatzeagatik zerbait kobratzen zuela eta horregatik etorri omen zen Beasaingo garapena.

Beasainek oso lotura handia du trenarekin. Beraz, lehengo trenbide gaineratik zihoan zubitik hasi eta ia geltokiraino doan zatia *Trenbide kalea* izendatzea proposatu dugu.

Igartza inguruari *Igartzako plaza* izena ematea.

Beste kale bat gelditzen da bi aldeetara atariak dituen. Horri *Usategi kalea*, lehen hor izen hori zuen baserria zegoelako, Indar handitu zenean bota zena hain zuzen ere.

Nahiz eta kalea ez izan, pasealeku bat ateratzen da, hasieran *Uarka pasealekua* izendatzea proposatzen genuena, kanalarekin zerbaiten zerikusia duena, baina hirigintza-batzordean izen berezirik ez ematea erabaki zen, ibilbideei izenik jarri ez diegulako.

Zapatari kaletik, "erromatar itxurako" parkearen ingururaino zati bat gelditzen da eta horri *Dolare kalea* deitzea proposatzen da.

Zapatari kaleak beheraino jarraitzen du, hau da, trenbide kaleraino eta plaza Dolarea gainean ateratzen den plazari, *Dulce Maria Loinaz plaza* izendatzea.

Ibai ondoan oinezkoentzat pasabide bat gelditzen da, atariak ere egongo direna. Horri, *Errementaribidea* deituko diogu."

Une honetan sartu da batzarraldira, Jon Berbel Aiestaran.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): "Guk proposamen bat egin nahi dugu eta proposamena zera da: puntu hau gaur Udalbatza honetan ez erabakitzea eta mahai gainean uztea eta beharbada batzorde bat sortzea hemen gauden indar politikoen ordezkariekin osatutakoa, eztabaidatzeko eta adosteko irizpide orokorrak sortu behar dira eta kale berriei izenak emateko. Proposamen honen arrazoia zera da: gai hau aspalditik dator eta behin baino gehiagotan aipatu dugu. Normalean eramaten den prozesua ondorengoa da, euskara-batzordeak proposamena egiten du eta hirigintza-batzordeak baiezkoa

ematen dio eta gero Udalbatza honetara pasatzen da onartzeko. Kasu guztietan, irizpide bakarra erabiltzen da eta hori memoria historikoa da. Gure ustez memoria historikoa garrantzitsua da, baina herri honen historian ez dut uste beti-beti atzera begira egon behar dugunik, baizik eta uste dugu herri honek etorkizunerako proiektio bat izan behar duela eta proiektio hori unibertsalagoa izan behar duela. Guk batzorde horretan baldintza bakarra jarriko genuke, hau da, erabakiak adostasun osoarekin hartu beharko lirateke. Bi salbuespen egingo genituzke, bata Igartzako futbol-zelaia, onartuta dagoelako eta bestea, Dulce Maria Loinaz plaza, hori ere lehendik onartuta zegoelako.

Uste dugu badela garaia, memoria historikoaz gain beste irizpide batzuk ere kontuan izateko. Udalak ahalegin bat egin beharko luke, herritarrei bere ikuspuntuak eskatzeko. Gai hau, hain zuzen ere iruditzen zaigu, horretarako gaia aproposa dela, adibidez hezkuntza-munduan dabiltzanak izenak proposa ditzakete. Momentu egokia orain da, etxe-talde berriak eraikitzen ari direlako eta kale berriak sortuko direlako. Noizbait egitekotan orain egin beharko litzateke.”

Andoni Antxia jaunak (Beasaingo Sozialista Abertzaleak): “Ados gaude hirigintza-batzordearen proposamenarekin.”

Patxi Plazaola jaunak (EAJ/PNV-EA): “Prozedura PSE-EE/PSOeko ordezkariak esan duena bezalakoa izan da, baina euskara-batzordeko proposamena hirigintza-batzordean aurkeztu eta gero denbora eman da ondo aztertzeko eta ez da beste inolako proposamenik aurkeztu. Herritarrei kontsultatzeari buruz, esango nizuke, inguru horretan zerbait dakitenei galdetu zaiela. Inguru horretan toponimiako izenak hartzea ez da atzera begiratzea, baizik eta bereziki toki horietan memoria historikoa gordetzea oso garrantzitsua da. Bestela ez du inolako zentzurik ondarea berreskuratzeak. Badaude bi izen toponimiarekin zerikusirik ez dutenak, bata *Trenbide kalea*, Beasainek trenarekin lotura duela iruditzen zaigulako eta bestea *Dulce Maria Loinaz plaza*. Izen honi indarra eman nahi izan zaio eta horregatik jarri zaio izena atari asko dauden plaza bati.

Eskertzen da PSE-EE/PSOeko ordezkariak egin duen proposamena, baina kasu honetan bi parametro izan dira kontuan, toponimikoa eta Beasaingo identitatearekin zerikusia duena.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, PSE-EE/PSOeko ordezkariak aurkeztutako proposamena bozkatu da:

Aldeko botoak: 5 (PSE-EE/PSOE, PP)

Aurkako botoak: 11 (EAJ/PNV-EA, Beasaingo Sozialista Abertzaleak)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz ez da onartu aldeko botoak aurkakoak baino gutxiago direlako.

Beraz, hirigintza-batzordetik datorren proposamena bozkatu da eta honelako emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV-EA, Beasaingo Sozialista Abertzaleak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (PSE-EE/PSOE; PP)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo kale berriak izendatu eta eraikin berriak zenbatu dira:

<u>"KALEAK</u>	<u>ZENBAKIAK</u>
Peategi kalea	2, 4
Trenbide kalea	2, 4, 6, 8
Usategi kalea	1, 3, 5 eta 2, 4, 6
Dulce Maria Loinaz plaza	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14
Nafarroa etorbidea	22, 24, 26, 28
Mendeurren etorbidea	1A, 1B
Zapatari kalea	2A
Dolare kalea	zenbakiak jartzeko gelditu da.
Igartzako plaza	1, 2, 3, 4
Errementaribidea	zenbakiak jartzeko gelditu da."

5.- TASAK. 2003. urtean aplikatu behar diren tarifen hasierako onespena.

Alkate jaunak, Jose Antonio Guirado jaunari hitza eman eta honek hazienda-batzordeko proposamena azaldu du: "Hazienda-batzordeak 2003. urtean aplikagarri izango diren eta ondoren zehazten diren, zerga eta tasen onespena proposatzen dio Udalbatza Osoari:

1.- Igoerarik gabe:

- Landalur-Ondasun Higiezin gaineko Zerga.
- Lurzoru industrialeko Hiri-Ondasun Higiezin gaineko zerga
- Eraikuntzen gaineko zerga
- Gainbalioak
- Hilerriko tasak
- Dokumentuak onartu eta ematea
- Postuak, barrakak, etab.

2.- Zabor-bilketa tasa: %10

Ur-hornidura eta azpiegituren kanona: %10

Kiroldegia: abonatuaren tarifak: %8,66

Ikastaroak: % 3,5

Euskaltegia: % 5,9. HABEK eta EUDELEK hitzartutako prezioa

3.- Besteak: KPA”

Jarraian Jose Antonio Guirado jaunak honela dio:

“Impuesto de bienes inmuebles: en este impuesto tenemos rústica y urbana y en rústica se mantiene el tipo actual. En urbana se aplica el IPC, esto es, el 3,6 %. El IPC se aplica de agosto a agosto. El año pasado se hizo la nueva valoración catastral, y no se tuvo en cuenta la devaluación que hace que cada año el valor catastral sea menor. Si mantuviéramos el tipo año tras año sin incremento alguno, la depreciación no la recuperaríamos y por otro lado no aplicaríamos el IPC, y en consecuencia habría un doble desequilibrio entre la realidad y el poder adquisitivo de los ciudadanos. Esta es la razón por la cual aplicamos el IPC. El impuesto de bienes inmuebles correspondiente a terrenos industriales no lo vamos a subir.

A pesar de lo que en Beasain se cobra en concepto de IBI es menor que en otros municipios parecidos al nuestro, tales como, Tolosa, Pasaia, Eibar, Mutriku, Azpeitia, Errenteria, Villabona, Aizarnazabal, Sorluze, Deba, Errezil.

Impuesto de Actividades Económicas. Se incrementa el IPC. Pasa del 1,25 a 1,295. En este impuesto todavía estamos más bajos en relación al resto de municipios, incluido Ordizia. De 88 municipios, 55 están por encima de lo que nosotros planteamos.

Impuesto de Vehículos. Incremento del IPC (3,6%). Están más altos que nosotros, Elgeta, Oñati, Zumarraga, Azkoitia, Azpeitia, Ordizia, Hondarribia, Bergara, Lasarte-Oria, Arrasate, Tolosa, Zumaia, Hernani, Andoain, Lezo,

Oiartzun, Donostia, Irun Errenteria y Eibar. Este último es el que está más caro de todos.

En el impuesto de construcciones se mantiene el tipo del 4,5%. Se introduce, sin embargo un concepto, que es la de la bonificación de un 95% en las viviendas de VPO.

En las plusvalías se mantiene el tipo.

Agua. El Consorcio plantea una subida del agua para el año 2003 del 13%. El año pasado planteó una subida del 14% y el año 2001 la subida fue del 10%. Nosotros para el año 2001, planteamos un 5%. Para el año 2002, un 3,7% y para este año proponemos un 10%. Sumando lo de los tres años, el encarecimiento del agua bruta es de un 37%, sin contar los porcentajes acumulados. Sin embargo nosotros hemos incrementado en un 17,7%. El cánón de infraestructuras sería el mismo porcentaje. Nosotros el año pasado comentamos que dado que los valores catastrales habían subido, que no era prudente aplicar el 14% que se nos planteaba desde el Consorcio, y por ello propusimos incrementar el IPC. Siguiendo el criterio que hemos venido manteniendo hasta ahora, planteamos cobrar el gasto que para el Ayuntamiento supone. Por ello proponemos una subida del 10%.

Basuras. La Mancomunidad Sasieta va a sacar a concurso nuevamente el servicio de recogida de residuos sólidos urbanos y su transporte al vertedero. En el pliego está prevista la recogida diaria, a excepción del día de Navidad y del día de Año Nuevo. Ello supone un incremento del coste del servicio en un 15%, teniendo en cuenta que también se prevé la recogida de madera a aquellos pabellones que la generen y el mantenimiento de los contenedores se realizará por una persona a jornada completa, ampliándose la frecuencia de la limpieza. Sin embargo, lo que la Comisión de Hacienda propone es que la subida sea de un 10%.

Polideportivo. El criterio que se sigue es que el polideportivo cada vez sea más autónomo y se vaya autofinanciando. Se mantiene la aportación del Ayuntamiento, concretamente en 312.000 €. Las tarifas de los abonados suben un 8,66% y los cursos un 3,5%.

Ocupación de dominio público. El depósito de materiales en la vía pública por m² y el depósito de materiales en un contenedor era el mismo. Lo que se ha hecho es reducir a la mitad la tarifa del depósito de materiales en la vía pública porque el tiempo de permanencia en la calle es menor.

Las tarifas del Euskaltegi lo son en función del acuerdo entre HABE y EUDEL y este año la subida es de un 5,9%. Se mantienen todas las subvenciones por asistencia, rendimiento en los cursos, etc.

Finalmente señalar que en la categoría de las calles, ya se han incluido las nuevas.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

PPko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

PSE-EE/PSOeko ordezkariak: “Beste urteetako irizpidea mantenduko dugu. Beraz, abstenitu egingo gara.”

Andoni Antxia jaunak (Beasaingo Sozialista Abertzaleak): “Gauzak koherentziarekin egiten direnean eta finantza-egoera ondo egonik, logikoa da prezioak ahal den gutxiena igotzea eta prezioak zorroztea. Asmo hori tasetan ikusten da eta zerbitzuek gastu bat izaten dutenez, derrigorrezkoa da ordaintzea. Hori bai ahalik eta gutxiena eta zerbitzu ona emanez. Hau guztia aztertu ondoren, ados gaude proposatzen denarekin.”

Horren ondorioz, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV-EA, Beasaingo Sozialista Abertzaleak, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 3 (PSE-EE/PSOE)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. 2003. tarifei hasierako onespina ematea.

Bigarren. Jendaurrean jartzea 30 eguneko epean alegazioak aurkeztu ahal izateko.

6.- ARAU SUBSIDIARIOAK. 1 HArekiko Arau Subsidiarioen aldaketa

Alkate jaunak, Patxi Plazaola, hirigintza-batzordeburuari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

“AURREKINAK

2002ko maiatzaren 21eko hirigintza-batzordeak, Esteban Lasa 4, 6, 8, 10 eta 12ko jabekideen ordezkariak aurkeztutako idatzia aztertu zuen. Idatzi horretan adierazten zen aipatutako finketan dagoen plazatxoan arazoak

daudela, zeren eta pribatua izan arren, erabilera publikoa ematen zaiola. Ereku horrek, autoak aparkatzeko erabiltzen denez, hirigintza-batzordearen arabera, jabari publiko izatera pasatu beharko luke eta xehetasun hori Arau Subsidiarioen aldaketetan jaso beharko litzateke.

1. Hirigintza Arearen (1 HA) Aurrerakina jendaurrean jarri zen hogeita hamar eguneko epean eta gainera, 2002ko uztailaren 1eko GAOn, 2002ko ekainaren 22ko Diario Vascon eta 2002ko ekainaren 18ko Euskaldunon Egunkarian iragarkiak argitaratu ziren. Epe horretan ez da inolako alegazio edo iradokizunik aurkeztu.

Horren ondorioz, Planeamenduko Erregelamenduaren 125,3 artikulua xedatutakoa betez, Udalbatzari gehiengo absolutuarekin onartu beharreko (ELOLEaren 47,3i artikulua), ondorengo proposamena egiten zaio:

Lehenik. 1. Hirigintza Arearekiko, Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa lantzeko irizpide eta irtenbideak onartzea eta aldaketa horretan Jose Migel Iturriotz kalearen eta Esteban Lasa 6, 8, 10 eta 12 eraikinen artean dagoen plazatxo jabari publikokoa izatea aurreikustea.

Bigarren. Erabaki honen berri idazketa-ekipoari ematea, hasierako onespenerako dokumentua presta dezan.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez eta gehiengo absolutuarekin onartu da.

Jarraian, Patxi Plazaola jaunak, dokumentuari hasierako onespena emateko proposamena irakurri du:

“AURREKINAK

Udalbatzari 1. HArekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketa lantzeko behar diren irizpide eta irtenbideak onartzeko proposamena egin zaio eta onartu egin dira.

Horren ondorioz eta Planeamenduko Erregelamenduaren 125 eta ondorengo artikuluek diotenaren arabera, Udalbatzari ondorengo akordio-proposamena egiten zaio:

Lehenik. 1. HArekiko Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespena ematea, dokumentuak onartutako irizpide eta irtenbideak jasotzen dituelako.

Bigarren. Espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean, iragarkia GAOn eta probintzian gehiena zirkulatzen duen egunkarian, interesatuek alegazioak aurkeztu ahal izateko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez eta bide batez gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

7.- LURSAILEN TRUKEA. Indar Máquinas Electricas S.L.rekin lursailak trukatzeari.

Alkate jaunak, Patxi Plazaola hirigintza-batzordeburuari hitza eman eta honek proposamenaren berri eman du:

“1.- Beasaingo Udalak INDAR MAQUINAS ELECTRICAS S. L. enpresarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, Udalbatza Osoak 1999ko irailaren 30ean eta Gobernu Batzordeak 2001eko uztailaren 7an egindako bileren arabera, truke-eragiketarako egitea erabaki zuen, aipatutako enpresari 7. Sektoreko 68.390 m² eta 18.000 m²-ko lursailak besterenduz.

Gaur egun, Beasaingo Udala, 7. Sektorean (Txarako Industrialdea) 52.428,5 m²-ko lursailaren jabe da eta Indar Máquinas Eléctricas S.L.rekin trukea egitea proposatzen da.

Truke honekin zera lortu nahi da: Indar enpresaren garapenerako behar den lurzorua gordetzea eta Udalak, jarduera ekonomikorako ekimen berriei erantzuteko lurzoru-ondarea mantentzea.

Aipatutako enpresak, handitu eta hobetzeko beharrei erantzuteko 7. Sektorean (Txarako industrialdea), beharrezkoa da behar adina kalifikatutako lursailak izatea.

Bestalde, Beasaingo Udalak ez dio uko egiten, udalerrian sor litezkeen enpresa-ekimen berrien sustatzaile izateari. Egoera honek, ordenazio eta garapenerako lurzorua izatera behartzen gaitu.

Beraz, aurreikusitako trukea egitea komenigarria da.

2.- 2002ko uztailaren 15ean arkitektoak txostena egin du trukatu behar diren ondasunen balorazioa eginez, hau da:

Udalaren lursailen balioa: 1.157.097,00 €

Kontratua egin behar duen aldearen lursailen balioa: 1.096.818,94 €.

Beraz, Udalaren alde 60.278 €ko aldea dago. Alde hori bidezkoa da izan ere, balio handia duen ondasunaren % 40a ez du gainditzen (Ondasun Araudiaren 112. artikulua).

2- Aurrekontu orokorraren baliabide arruntak, 10.080.039,89 €-raino iristen dira. Beraz, ondasun hauek balio dutena ez da kopuru honen % 25era iristen. Horren ondorioz, ez da beharrezkoa aurrez Autonomi Erkidegoak baimena ematea. Aldiz aurrekontuko baliabide arrunten % 10eraino iristen direnez, trukea erabakitzeke eskuduntza Udalbatzarena da.

3- Ondasun Araudiaren 109, 112 eta 118. artikuluek diotenaren arabera eta FAAREN 123. artikulua ematen dituen eskuduntzak ikusirik, gobernu-batzordeari ondorengo AKORDIO-PROPOSAMENA EGITEN ZAIO:

Lehenik. INDAR MAQUINAS ELECTRICAS S. L.ri jarraian aipatu eta Udalarenak diren lur-zatiak besterentzea. Lursail horiek honako hauek dira:

Tolosako Jabetza Erregistroan, inskribatutako lursail etena. 11.530 finka, 1940. tomoa, 211. liburua, 3. orrialdea; 12.598,5 m² ditu.

1876. tomoan, 205. Liburuan, 107. orrialdean inskribatu eta 11.169 zenbakia duen finka; 39.830 m²-ko azalera du.

Lursail horiek besterenduko dira jarraian aipatzen diren lursailekin trukea eginez:

INDAR MAQUINAS ELECTRICAS S. L. ren orubea:

baseria izan zenak zituen lursailetatik gelditutako hondarreko lursailetatik datorren 48.401 m²-ko landa-lursaila

136. zenbakia duen finka, Azpeitiko Erregistroan 1409. tomoan, 11. orrialdean eta Astigarretako 6. Liburuan inskribatutakoa. 260 m²-ko azalera du.

Bigarren. Teknikariak bere txostenean, Udalaren finkei 1.157.097,00 €-ko balioa eman die eta INDAR Maquinas Eléctricas S. L.-ren orubeei berriz 1.096.818,94 €koa.

Beraz, Udalaren alde, 60.278,06 €gelditzen dira.

Hirugarren. Prozedura hau, Autonomi Erkidegoan eskuduntza duen organoari jakinarazi egingo zaio, Ondasun Araudiaren 109. artikulua dioena betez.

Laugarren. Alkate jaunari baimena ematea akordio hau jakinarazteko behar diren dokumentuak sinatzeko.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

PPko ordezkariak adostasuna azaldu du proposamenarekiko.

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros no vamos a apoyar este tema. Tenemos nuestras dudas, no en cuanto al objetivo de Indar que nos parece razonable y legítimo. Teniendo en cuenta las hipotecas que puede tener el terreno de Itola, creemos que las valoraciones no están suficientemente compensadas. Temenos la impresión de que si el convenio fuera a la inversa posiblemente la parte compensatoria que el Ayuntamiento debería de abonar sería bastante superior a lo que aquí se establece. Nos parece que hay dos elementos que no se han tenido suficientemente en cuenta. Cuando Indar valoró la construcción del nuevo pabellón, se valoraron también los terrenos de Itola y uno de los factores que les hizo desistir es la línea de alta tensión que cruza el terreno. Eso puede acarrear una serie de problemas para el desarrollo del polígono. El otro factor es el siguiente: el anteproyecto del tren de alta velocidad prevé el paso por esa ladera.

Por otra parte hay que tener en cuenta los gastos de urbanización del polígono de Txarako Industrialdea, aunque buena parte de las infraestructuras están ejecutadas. Lo cierto es que cuando se firmó el convenio con Indar esos gastos se tuvieron en cuenta al valorar los terrenos.

En consecuencia, no nos parece que la permuta está lo suficientemente compensada. Por ello vamos a votar en contra.”

Andoni Antxia jaunak (Beasaingo Sozialista Abertzaleak): “Oso zaila da momentu honetan lursail hori baloratzea baldin eta orain zer den eta etorkizunean zer izango den pentsatzen badugu. Bere momentuan Indar-i irteera bat eman bagenion bere etorkizuna ziurtatzeko, argi dago orain ezin diogula bidea moztu. Faktore desberdinen arabera ikusiko dugu Itolako lursaila zertan gelditzen den, beraz, abstenitu egingo gara.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Prozesu honen guztiaren historia bizi eta eta ezagutu izan dut. Egia da eta garbi gelditu behar duela operazio honek baduela bere arriskua. Arrisku bakarra abiadura handiko trenaren trazatua da. Guk kudeaketak egin ditugu, bai proiektua egin dutenekin eta bai

Jaurlaritzarekin eta uste dugu arriskua erabat minimiza daitekeela. Ez dakigu, egia da, etorkizunean Nafarroarekin lotura hemen, Tolosaldean edo Ordizian izango den. Oso zaila da lotura hori hemen egitea, baina izan daiteke. Horrek, guk erosiko dugunaren aprobetxamendua behar bada erdira jaitea ekarriko luke. Hor badago Estatuaren Lege bat, non honelako zubibideetan azpikoa ez den hipotekatzen. Horrekin ez dut esan nahi arriskurik ez dugunik.

Bestalde esan, Indar bere garaian Itolara joan ez bazen hain zuzen honegatik izan zela. Itolara joan balitz, gaur egun Indarrek ez zuen aukerarik izango handitzeko edo zabaltzeko. Bere momentuan behar zuen azalera ematen zion, baina ez zion handitzeko biderik uzten. Beste arazo bat berriz zera zen: aldameneko hormigoi-plantak botatzen dituen hautsek, bere ekoizpen-prozesuari kalte egin ziezaioketela.

Egia da bere garaian hirigintza-gastuetan parte hartu genuela, baina gure lurzattia betetzeko gastuetan hartu genuen parte. Edozeinek ikus dezake, Txarako Industrialdeak duen hirigintza-karga askoz ere handiagoa dela. Esan genezake poligonoa ia hiritartuta dagoela, baina oraindik ez da 50 milioi baino gehiago kostako den biribilgua egin. Guk konpromiso hori sinatua dugu Olaberriko Udalarekin. Lurzatiak definituta daude, saneamendua eta argia eramanda daude, oso urruti dago, errekatxoa bideratuta dago eta ez dugu ahaztu behar momentu honetan Indar bere garaian zuloa zenaren gainean dagoela. Birzatiketa Proiektuan hori hiritartzea ez zegokion berari bakarrik, guri ere bai. Industrialde horrek orografi eta komunikazio-arazoak zituela kontuan izanda, askoz garestiagoa zen. Hori guztia kontuan hartuta eta abiadura handiko trenak erasaten ez bagaitu, operazioa borobila da. Arrisku-puntua badu, baina neurri horretan.”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Gu ez gaude trukearen aurka. Esaten duguna da, gure ustez balorazioa ez dagoela konpentsatuta. Horregatik ez dugu proposamen hau onartzen. Mahai gainean uzten dugun galdera hau da, alderantziz izanez gero, Indarrek onartu ahal zukeen horrelako trukea?. Ni, Indar izango banintz ziur aski ez. Guretzat subentzio-erdi bat dagoela dirudi. Horregatik eskatzen dugu beste balorazio bat egitea. Bestela guk ez dugu onartuko.”

Patxi Plazaola jaunak (EAJ/PNV-EA): “Nik galdera bat bakarrik egin nahi nuke. Udala merkatuan sartu behar al da eta espekulatzailaeei exenplu eman behar al die? Orain onartu den 8. Sektoreko balioak badakizkigu eta 2.800 pta./m² prezioa defendatu dugu”

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Kutxa tiene intereses concretos en Indar. Para Kutxa es una buena operación.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Me cuesta creer que Kutxa acometa una operación para que se beneficie otro a costa de perder él, al margen de que sea accionista de Indar.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ/PNV-EA, PP)

Aurkako botoak: 3 (PSE-EE/PSOE)

Abstentzioak: 3 (Beasaingo Sozialista Abertzaleak)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da hirigintza-batzordearen proposamena.

8.- LURSAILEN LAGAPENA. Eusko Jaurlaritzak egiten duen, 37 HAKo bide, gune berde eta libreen lagapena onartzea.

Ezagutzera eman da, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak 2002ko abuztuaren 27ko idatziaren bidez, Beasaingo Udalari egiten dion dohaineko lagapena, elkartutako lurrari dagozkion 37 HAKo (Ezkiaga auzoa) bide, berdegune, erabilera publikoko zabalgunek, zerbitzu-sare eta ekipamenduei buruz.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

9.- BALKOIAK IXTEARI BURUZKO ORDENANTZA. Etxebizitzetan balkoiak ixteari buruzko ordenantzaren hasierako onespina.

Alkate jaunak, Patxi Plazaola hirigintza-batzordeburuari hitza eman eta honek ordenantzaren atal nagusien berri eman du.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa egin da eta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Etxebizitzetan balkoiak ixteari buruzko ordenantzaren hasierako onespina ematea.

Bigarren. Ordenantza jendaurrean 30 eguneko epean jartzea, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

10.- BIZTANLEEN ERROLDA. 2002ko urtarrilaren 1eko erreferentziarekin biztanleen erroldaren kopurua onartzea.

Alkate jaunak, biztanleen udal-erroldaren urteroko berrikusketaren berri eman du. "2002ko urtarrilaren 1eko datarekin biztanleria, 12.313koa da. 2001eko urtarrilaren 1ean, biztanleria 12.192koa zen. Gehikuntza 121koa izan da. Gehikuntza horren berezitasunak ondorengoak dira: jaiotza eta hildakoen arteko diferentzia 41koa da, beste herri batzuetatik etorritako eta hemendik beste herri batzuetara joandakoen arteko diferentzia, 27koa da, atzerrira 3 joan zaizkigu eta atzerritik 50 etorri zaizkigu eta gaizki egindako inskripzioak direla eta 6 gehiago daude herrian.

Al día de hoy las personas empadronadas son 12.383."

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek aho batez onartu dute, 2002ko urtarrilaren 1eko erreferentziarekin biztanleen erroldaren kopurua.

Une honetan Aimar Larrea jauna batzarralditik irten egin da.

11.- PLANTILLA. 2002. urterako plantila eta lanpostuen zerrenda

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA) gobernazio-batzordeko proposamenaren berri eman du, 2002. urterako plantila eta lanpostuen zerrenda onartzeko. Iazko plantilaren antzekoa dela aipatu du. Dauden desberdintasunak, plaza batzuk amortizatzeagatik izan da. Iaz, EUDELekin eta Sindikatuekin adostutako irizpideak aplikatzen dira.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, aho batez onartu da ondorengo plantila eta lanpostuen zerrenda 2002. urterako.

2002. urterako PLANTILA ORGANIKOA.

LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTU KP.	TALDEA, 6/89 LEGEA 43. ART.	EGOERA	OHARRAK
KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK Estatuko gaikuntza-izaera duten lanpostuen eskala <u>Idazkaritzako Azpieskala</u>				
IDAZKARIA.....	1	A	BB	
<u>Kontuhartzaitzako Azpieskala</u>				
KONTUHARTZAILEA.....	1	A	BB	

LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTU KP.	TALDEA, 6/89 LEGEA 43. ART.	EGOERA	OHARRAK
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA				
Diruzaintzako Azpieskala				
DIRUZAINA.....	1			Behin-behineko izendapena, 1994-02-23ko Udal-erabakiaren arabera
Azpieskala Teknikoa Mota: Goi-mailako Teknikariak				
ANTOLAKUNTZA-TEKNIKARIA.....	1	A	H	
Mota: Maila Ertaineko Teknikariak				
ITZULTZAILEA.....	1	B		Lan-hitzarmen finkodunak betea.
Administrarien Azpieskala				
PERTSONALEKO TEKNIKARIA.....	1	C	J	
HARRERA BULEGOKO KOORDINATZAILEA.....	1	C	J	
ADM. OROKORREKO ADMINISTRARIA.....	5	C	J	Plaza hauetako bat hutsik dago, 1994-02-23ko Udalbatzaren erabakiz Diruzaina behin-behinekotasunez izendatu izanaren ondorioz
ADM. OROKORREKO ADMINISTRARIA.....	1	C	BB	Informatika Sailerako sortua da eta ezindu fisikoei zuzendua. Hau hornitzean, sail bereko Administrari Laguntzailearen plaza desagertu egingo da.
ADM. OROKORREKO ADMINISTRARIA, INFORMATIKA-SAREAREN KUDEATZAILEA.....	1	C	H	
Laguntzaileen Azpieskala				
ADM. OROKORREKO LAGUNTZAILEA.....	1	D	J	
ADM. OROKORREKO LAGUNTZAILEA.....	1	D	J	
ADM. OROKORREKO LAGUNTZAILEA, INFORMATIKA-SAREAREN KUDEATZAILEA.....	1	D	BB	Plaza hau automatikoki desagertuko da Informatika-saileko Administrari-plaza hornitzean
ADM. OROKORREKO LAGUNTZAILEA.....	1	D	H	
ADM. OROKORREKO LAGUNTZAILEA.....	1	D	H	

LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTU KP.	TALDEA, 6/89 LEGEA 43. ART.	EGOERA	OHARRAK
ADM. OROKORREKO LAGUNTZAILEA.....				
ADMINISTRATIO BEREZIKO ESKALA				
<u>Azpieskala Teknikoa</u>				
Mota: Maila Ertaineko Teknikariak				
APAREJADOREA.....	1	B	J	
Mota: Teknikari Laguntzaileak				
DELINEATZAILEA.....	1	C	J	
<u>Zerbitzu Bereziatoko Azpi-eskala</u>				
Mota: Udaltzaingoa eta bere Laguntzaileak				
OFIZIAL-ONDOKOA (BURUA).....	1	C	J	
AGENTE LEHENA.....	2	D	J	
AGENTEA.....	7	D	J	
AGENTEA.....	1	D	J	
.....	1	D	H	
AGENTEA.....				
Mota: Eginkitzun Anitzetako Lanpostua				
GIZARTE-LAGUNTZAILEA.....	1	B	J	
GIZARTE-LAGUNTZAILEA.....	1	B	BB	
3.ADINEKO DINAMIZATZAILEA.....	1	B	BB	2003. urtean desagertzeko izendatzen da
GIZARTE- -ERAGILEA.....	1	B	J	
KULTUR DINAMIZATZAILEA	1	B	J	
KULTUR TEKNIKARIA.....	1	B	H	
LIBURUTEGI-LAGUNTZAILEA.....	1	D	BB	Urtea hasita, plaza hutsik geratu da.
UR-ARDURADUNA.....	1	D	J	
OBRETAKO LANGILEA.....	2	D	J	
OBRETAKO PEOIA.....	2	E	J	

PERTSONAL LABORALARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTU KP.	LANBIDE- -MAILA	SARTUTAKO TALDEA	EGOERA	OHARRAK
ZERBITZUBURUA.....	1	2	B	F	
ZABOR-ARDURADUNA.....	1	9	D	F	
KALE-GARBITZAILE NAGUSIA.....	1	9	D	F	
KALE-GARBITZAILEAK.....	5	10	E	F	
MANTENIMENDU-LANGILEA.....	1	10	E	F	
LIBURUTEGI-LAGUNTZAILEA.....	1	7	D	F	
LIBURUTEGI-LAGUNTZAILEA.....	1	7	D	F	Lanaldiaren % 50
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA.....	1	7	D	F	Lanaldiaren % 50
ETXE-GARBITZAILEA	1	10	E	F	

Erregimen Lokaleko gaietan indarrean dauden lege-xedapenak onartzen dituen apirilaren 18ko 781/86 Errege Dekretu Legegilean xedatua betez jende orok jakiteko argitaratu da.

BEASAINGO UDALEKO 2002. URTERAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

Ordena-zk.	Izena	Lanpostu-kopurua	Lanpostu-mota	Hornitzeko era	Ordainketa Osagarriak		Dedikazioa	Bulegoa	Lanpostu horretarako exijitutako betebeharrak					Oharrak	
					Destino Osagarriaren maila	Osagarri Espezifikoa			Atxikipena			Hizkuntz Eskakizuna			Exijitutako Titulazioa
									Taldea edo Eskala	Azpi-eskala	Mota	Maila	Derrigor-tasun-data		
(1)	(2)	(3)	(4)	(5)	(6)	(7)	(8)	(9)	(10)	(11)	(12)	(13)	(14)	(15)	(16)
KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK															
1	Idazkaria	1	B	-	24		-	I	EG	I	2ª	4	92-7-1	ZL edo G	
2	Kontuhartzailea	1	B	-	22		-	KH	EG	KH	2ª.	4	90-2-1	ZL edo G	
3	Diruzaina	1	B	-	16		-	DZ	AO	DZ		4	90-2-1	ZL edo G	Behin-behineko izendapena, 1994-02-23ko Udal-erabakiarar arabera.
1	Antolakuntza Teknikaria	1	E	OL	16		-	I	AO	GT	-	4	01-07-19	ZL edo G	
1	Itzultzailea	1	E	-	18(1)		-	I	AO	I	TE	4 T.G.	-	-	Lan-hitzarmen finkodunak bete
1	Pertsonalko Teknikaria	1	E	-	15		-	I	AO	AA	-	3	94-7-1	GMB edo G	
2	A. Orokorreko Admin.	1	E	-	14		-	DZ	AO	AA	-	3	93-7-1	GMB edo G	Hutsik dago titularrak Diruzain-postuari esleituta dagoelako.
3	Antolakuntza-bulegoko koordinatzailea	1	E	-	12		-	I	AO	AA	-	2	91-7-1	GMB edo G	
4	A. Orokorreko Admin.	1	E	-	10		-	I	AO	AA	-	2	92-7-1	GMB edo G	
5	A. Orokorreko Admin.	1	E	-	10		-	ZB	AO	AA	-	2	92-7-1	GMB edo G	
6	A. Orokorreko Admin.	1	E	-	10		-	KH	AO	AA	-	2	92-7-1	GMB edo G	
7	A. Orokorreko Admin.	1	E		10		-	HB	AO	AA	-	2	91-7-1	GMB edo G	
8	A. Orokorreko Admin.	1	E	Behin-behinekoa	10		-	GO	AO	AA	-	2	96-02-29	GMB edo G	
9	A. Orokorreko Admin./ Informatika-sarearen kudeatzailea	1	E	OL	10			I	AO	AA	-	2	01-07-19	GMB edo G	Hutsik dago eta hau hornitzeaz Informatika-sareko Administrazio Laguntzailearen plaza desagertu egingo da. Plaza hau ezin du fisikoen tituluak gordeta dago
10	A. Orokorreko Lagun.	1	E	OL	8		-	I	AO	AL	-	2	96-02-29	BMB edo G	
11	A. Orokorreko Lagun.	1	E	OL	8		-	I	AO	AL	-	2	94-07-13	BMB edo G	

Ordena-zk.	Izena	Lanpostu-kopurua	Lanpostu-mota	Hornitzeko era	Ordainketa Osagarriak		Dedikazioa	Bulegoa	Lanpostu horretarako exijitutako betebeharrak						Oharrak
					Destino Osagarriaren maila	Osagarri Espezifikoa			Atxikipena			Hizkuntz Eskakizuna		Exijitutako Titulazioa	
									Taldea edo Eskala	Azpi-eskala	Mota	Maila	Derrigor-tasun-data		
(1)	(2)	(3)	(4)	(5)	(6)	(7)	(8)	(9)	(10)	(11)	(12)	(13)	(14)	(15)	(16)
12	A. Orokorreko Lagun. / Informatika-sarearen kudeatzailea	1	E	BEHIN-BEHINEKOA	8			I	AO	AL		2	94-07-13	BMB edo G	Informatika-salleko Administrazio-plaza hornitzean desagertu egingo da.
13	A. Orokorreko Lagun.	1	E	H.	8			B.T	AO	AL		2	01-07-19		
14	A. Orokorreko Lagun.	1	E	H.	8			KH	AO	AL		2	01-07-19		
1	Aparejadorea	1	E	-	18		-	HB	AB	T	TE	4	94-7-1	AT	
2	Delineatzailea	1	E	-	10		-	HB	AB	T	TL	2	94-7-1	QL	
1	Ofizial-ondokoa (Buru)	1	E	-	16		-	UD	AB	ZB	UD	3	96-02-29	GMB edo G	
2	Udaltzain Lehena	2	E	-	12		-	UD	AB	ZB	UD	3	99-02-29	BMB edo G	
3	Udaltzaina	3	E	-	9		-	UD	AB	ZB	UD	2	92-7-1	BMB edo G	
4	Udaltzaina	2	E	-	9		-	UD	AB	ZB	UD	2	98-11-26	BMB edo G	
5	Udaltzaina	1	E	-	9		-	UD	AB	ZB	UD	2	99-12-31	BMB edo G	
6	Udaltzaina	1	E	-	9		-	UD	AB	ZB	UD	2	94-7-13	BMB edo G	
7	Udaltzaina	1	E	-	9		-	UD	AB	ZB	UD	2	99-04-29	BMB edo G	
8	Udaltzaina	1	E	H	9		-	UD	AB	ZB	UD	2	01-07-19	BMB edo G	
1	Gizarte-laguntzailea	1	B	-	13		-	GO	AB	ZB	TE	3	92-7-1	GL	
2	Gizarte-laguntzailea	1	E	Behin-behinekoa	13		-	GO	AB	ZB	TE	3	92-7-22	GL	
3	3.ADINEKO DINAMIZATZAILEA	1	E	Behin-behinekoa	11		-	GO	AB	ZB	TE	3	92-7-22	GL	2003. urtean desagertze ko izendatu da.
4	Gizarte Eragilea	1	E	OL	13		-	GO	AB	ZB	TE	3	01-07-19	GS edo H	
1	Kultur Dinamizatzailea	1	E	-	14		-	I	AB	ZB	TE	3	90-9-27	D edo HL	
2	Kultur Teknikaria	1	E	H	12		-	I	AB	ZB	TE	3	01-07-19	D edo G	
3	Liburutegi-Laguntzailea	1	E	Behin-behinekoa	8		-	I	AB	AL	-	2	96-02-29	BMB edo G	Urtea hasita, plaza hutsik galdit da.
1	Ur-Arduraduna	1	E	-	9		-	HB	AB	ZB	OP	2	91-7-1	BMB edo G	

Ordena-zk.	Izena	Lanpostu-kopurua	Lanpostu-mota	Hornitzeko era	Ordainketa Osagarriak		Dedikazioa	Bulegoa	Lanpostu horretarako exijitutako betebeharrak						Oharrak
					Destino Osagarriaren maila	Osagarri Espezifikoa			Atxikipena			Hizkuntz Eskakizuna		Exijitutako Titulazioa	
									Taldea edo Eskala	Azpi-eskala	Mota	Maila	Derrigor-tasun-data		
(1)	(2)	(3)	(4)	(5)	(6)	(7)	(8)	(9)	(10)	(11)	(12)	(13)	(14)	(15)	(16)
2	Obretako langilea	2	E	-	7		-	OL	AB	ZB	OP	1	-	BMB edo G	
3	Obretako peoia	2	E	-	7		-	OL	AB	ZB	OP	1	-	EG	

Ordena-zk.	Izena	Lanpostu-kopurua	Lanpostu-mota	Hornitzeko era	Ordainketa Osagarriak		Dedikazioa	Bulegoa	Lanpostu Horretarako exijitutako betebeharrak						Oharrak
					Destino Osagarriaren maila	Osagarri Espezifikoa			Atxikipena			Hizkuntz Eskakizuna		Exijitutako Titulazioa	
									Taldea edo Eskala	Azpieskala	Mota	Maila	Derrigor-tasun-data		
(1)	(2)	(3)	(4)	(5)	(6)	(7)	(8)	(9)	(10)	(11)	(12)	(13)	(14)	(15)	(16)
PERTSONAL FINKOARENTZAKO LANPOSTUAK															
1	Zerbitzuburua	1	B	Oposizio-Lehiaketa	2	B	-	TA	AB	ZB	TE	3	94-07-13	TE	
1	Zabor-enkargatua	1	E	-	9	D	-	GB	AB	ZB	OP	1	-	BMB edo G	
1	Garbiketako arduraduna	1	B	-	9	D	-	GB	AB	ZB	OP	2	99-12-31	EZ	
2	Kale-garbitzailea	5	E	-	10	E	-	GB	AB	ZB	OP	1	-	EZ	
1	Mantenimendu ko langilea	1	B	-	10	E	-	GB	AB	ZB	OP	2	99-04-29	EZ	

Ordena- -zk.	Izena	Lanpostu- -kopurua	Lanpostu- -mota	Hornitzeko era	Ordainketa Osagarriak		Dedikazioa	Bulegoa	Lanpostu Horretarako exijitutako betebeharrak						Oharrak
					Destino Osagarriaren maila	Osagarri Espezifikoa			Atxikipena			Hizkuntz Eskakizuna		Exijitutako Titulazioa	
									Taldea edo Eskala	Azpieskala	Mota	Maila	Derrigor- tasun-data		
(1)	(2)	(3)	(4)	(5)	(6)	(7)	(8)	(9)	(10)	(11)	(12)	(13)	(14)	(15)	(16)
1	Liburutegi-laguntzailea	1	E	-	7	D	-	KU	AB	ZB	CE	2	92-7-1	BMB edo G	
2	Liburutegi-laguntzailea	1	E	-	7	D	%50	KU	AB	ZB	CE	2	92-7-1	BMB edo G	
3	Administrari-laguntzailea	1	E	-	7	D	%50	KU	AB	ZB	CE	2	92-7-1	BMB edo G	
1	Etxe-garbitzailea	1	E	-	10	E		GB	AB	ZB	OP	1	-	EZ	

(1) 475/98 zenbakiko epaiaren arabera 18. maila berriz jarria.

12.- EBAZPENA. Alkatetzaren ebazpena, “Batasuna” izeneko udal-taldeak izena aldatu eta “Beasaingo Sozialista Abertzaleak” izena gatik hartu duela kontu emateko.

Ebazpen honen berri eman da:

“Gaia: “Batasuna” udal-taldearen izen-aldaketa: talde horrek “Beasaingo Sozialista Abertzaleak” izen berria hartu du.

Udal-hauteskundeak eta 1999ko uztailaren 3an Udalaren aldaketa burutu ondoren, udal-talde desberdinek bozeramaileak eta batzorde informatiboetara joateko ordezkariak izendatu zituzten. Hori guztia, 2568/86 Errege Dekretuaren 23tik 29ra bitarteko artikuluetan ezarritakoaren arabera.

2001eko uztailaren 12ko datarekin, Udalbatza Osoa jakinaren gainean jarri zen, E.H. udal-taldeak izen aldatu eta Batasuna izen berria hartu zuela.

2568/86 Erret Dekretuaren 23tik 29ra bitarteko artikuluetan ezarritakoa kontutan izanik, Alkatetza honek Udalbatzari kontu ematen dio Batasuna izeneko udal-taldeak, “Beasaingo Sozialista Abertzaleak” izen berria hartu duela.

Beasainen 2002ko uztailaren 18an. Alkatea. Sinatua: Jon Jauregi Bereziartua”

13.- MOZIOA. PPko mozioa, Santa Polako atentatu terrorista salatuz.

Alkate jaunak, PPko ordezkari den Julio Herreros jaunari hitza eman dio eta honek mozioa irakurri du:

“MOCION DE CONDENA DEL ATENTADO TERRORISTA DE SANTA POLA

Ante el último atentado cometido por la banda terrorista ETA el pasado cuatro de agosto en Santa Pola, el Pleno del Ayuntamiento de Beasain MANIFIESTA:

1.- Su dolor por los asesinatos de Cecilio Gallego y Silvia Martínez, así como su solidaridad con los heridos y demás afectados por este brutal atentado terrorista.

2.- La condena más enérgica de este atentado, así como su desprecio más absoluto hacia la banda terrorista ETA y los asesinos que la componen.

3.- Su respaldo al Estado de Derecho en la labor que viene desarrollando para detener y encarcelar a los responsables de tanto dolor, como para conseguir la derrota definitiva de la banda terrorista.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Ados gaude nahiz eta mozio hau berandu etorri eta zoritxarrez ordutik hona beste hildako batzuk izan”.

Andoni Antxia jaunak (Beasaingo Sozialista Abertzaleak): “Mozioa irakurri besterik ez dago ikusteko zein tendentziosoa den, arazoaren alde bakarra bakarrik ikusten baitu. Arazo honen alde bakarra ikusteagatik horrela gaude azkeneko 60 urteotan. Mozio hau Francoren garaian onartzeko modukoa da, baina ez gaur egun, izan ere negoziazioa eta irtenbide politikoak ez direlako aipatzen. Honen aurka azaltzen gara.”

Patxi Plazaola jaunak (EAJ/PNV-EA): “Mozio honen aurrean guk beste mozio alternatibo bat aurkezten dugu eta ondorengoa da:

“EAJ-PNV/EAREN MOZIO ALTERNATIBOA

Aurtengo abuztuaren 4an eta irailaren 24ean ETAK Alacanteko Santa Pola herrian eta Leitzan egindako atentatuen aurrean, EAJ-PNV/EAKO zinegotziek honako **MOZIO ALTERNATIBO HAU** aurkezten dute osoko bilkurak onar dezan:

1.- Gure gaitzespenik sendoena adierazi hiru pertsona hil dituzten eta lau zauritu eragin dituzten atentatu mesprezagarri horien aurrean. Izan ere, ETAK gure gizartea murgilarazi nahi duen espiral terroristaren zentzugabekeriaren lekuko baitira atentatu bortitz horiek

2.- Gure doluminik sentituena adierazi biktima horien senitartekoei. Bide batez, Santa Polako, Langreoko eta Leitzako herritar guztiei esan nahi diegu Beasaingo herritar gehien-gehienek elkartasuna dutela berekin, herri hau oso sarri agertu baita ETAREN aurka, bortizkeriaren bidea berehala eta behin betiko bazter dezala exijituz.”

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Esan, guk mozio hau aurkeztu dugula, PPK aurkeztutako mozioan gauza batzuk falta direla uste dugulako. Momentu honetan elkarrizketa beharrezkoa da egoera honi irtenbide bat emateko. Beraz, horren falta ikusirik, aurkezten dugun mozioan, ETAK egin dituen ekintzak salatzen ditugu eta afektatuak izan diren familiekin bat egiten dugu.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren iritzi hauek azaldu dira:

Julio Herreros jaunak (PP): “Mantenemos la nuestra”.

Jose Luis Elorza jaunak (PSE-EE/PSOE): “Nosotros en principio estamos de acuerdo con la contramoción que se ha presentado porque está más actualizada. El texto de la moción nos parece adecuado y la apoyaremos.”

Andoni Antxia jaunak (Beasaingo Sozialista Abertzaleak): “Desberdintasun batzuk ikusten ditugu bien artean. Onargariagoa izan liteke bigarrena, baina elementu batzuk falta dituela ikusten dugu, hau da, elkarrizketa, negoziazioa, arazoa politikoki konpondu beharra, etab. Testuan hitz horiek ez ditugu ikusten eta horregatik ez dugu mozioa onartuko nahiz eta zati batean esaten duenarekin ados egon, hala nola, familiei doluminak ematearekin.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, mozio alternatiboa bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE)
Aurkako botoak: 2 (Beasaingo Sozialista Abertzaleak)
Abstentzioak: 2 (PP)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da EAJ/PNV-EAk aurkeztutako mozio alternatiboa.

14.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ondorengoak aurkeztu dira:

AUKERA BERDINTASUNERAKO AGENTEA

Ana Asla andrea (EAJ/PNV-EA): “Joan de uztailean eta sei hilabeterako aukera berdintasunerako langile bat kontratatu genuen. Lanean hasi da eta beste helburu batzuen artean zinegotziori inkesta bat betetzea proposatzen digu. Inkestarekin batera azalpen batzuk azaltzen dira. Eskertuko nizueke inkestak betetzea.”

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera gaueko bederatzietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.